


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 263. alea - 2021eko ekaina

gaitu maita
dugun herri

**600 bazkide behar ditu Zuhatzak
aurrera egin ahal izateko**




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

EUROPEAN
EUSKAL
OKELA

ENTRE EL VINO DE CALIDAD DEL PAIS VINO EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



50 URTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIRUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel.: 943 19 22 63
www.atarideba.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



AURKIBIDEA

6

ALBISTEAK

Markel Beristain arraunean txapeldun; 1502 film aurkeztu dira Animadebara...



8

ALBISTEAK

Abian daude Ondarbeltzeko pasealekuko lanak, baita zubikoak ere



10

ERREPORTAJEA

Herritarrentzako bilera irekia deitu du Zuhatza Euskara Elkarteak uztailaren 1erako



13

ELKARRIZKETA

Nerea Loiola idazlea "Epizentroa" helduentzat idatzitako lehen liburuz



16

B. GAZTEA

Gazteak munduko hizkuntza gutxituez gogoetan, eta prentsa tailerraren agurra



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com


ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



DEBARKO UDAIA



Herkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Herakuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

ME ENDAÑETA
muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com

www.mueblesendaneta.com

zaindu maitatu dugun herri

egin zaitez zuhatzakide!

Urte guztiko bazkietza
30 euroren truke

www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide

Zuhatza euskara elkarte



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Begiradak-2021

Begira jarrita egongo zara agian, aurtengoan BEGIRADAKek bideari ertsiko ote dion, edo beste hainbat gauza bezala jausi ote den gure begirada paretik. Eta begira! Bai, aurtengoan ere bai; badator zortzigarrenez indarberrituta! Badatoz lehengo hainbat begi begirada berriak eskaintzeko prest beti, eta, urteroko moduan, badatoz saiora batu diren begi berriak ere, oholtza gainetik begiradak estreinatuzko irrikaz.

Zenbat ertz ditu irudi batek? Zenbat argi-itzal bideo batek? Zenbat egia oso, egia erdi eta egia uste albiste batek? Bizitza ez baita; begiradek egiten dute!

Uztailaren 16an, 22:00etan karpan egingo den hitzorduan, errealitatearen mugarik eza agerian jarriko digute 16 begiradak, 10 irudi edo bideori jarriek. Eta bertako bi musikarik horietako begirada batzuk margotuko dituzte

gainera, haiek ere berdin, beren gustu eta erara.

Begiradak-en asmoa? Gu geu, herri-tarrok, kultur sortzaile izan gaitzkeela sinestea, erakustea, eta gozatzea; kultura bertatik bertara eskaintzea; eta zu, ikusle, parean begira, begirik bildu gabe egon zaitezten saiatzea.

Begiradak-en nahia? Datorren urtean zure begirada besteanari batzea!

Begiradak Taldea

XXXIV. Antzerki Astearen argi-ilunak

Mila esker ikusle maitagarriok! Zuek gabe ezingo genuke kultur ekintzarik aurrera eraman. Txalo zaparrada guztiontzat!


GOAZ Antzerki Taldea



Panpina (Erika Olaizola)



Antroan Intro (Orratz)



35 Huts (Esti Curiel)



Mesede bat egitearren (Trapu Zaharra)



Konpromisoa (Txalo Produksioak)



Kutxa baten istorioak (Trotamundos)



Badator (GOAZ) Deban



Badator (GOAZ) Itziarren

Zumardi
pentsioa
* *
Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com
f @

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!
Zuhatza

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

LABATAI
taberna
GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH

Urte bat gehiago eta hurrengoari begira



Aurtengo urte arraroak ez digu utzi saskibaloiaz nahi bezala gozaten, baina ahal izan dugun egokien eta elkar zaindus egin dugu aurrera, kasu batzuetan entrenatuz soilik eta beste batzuetan lehiatuz ere bai. Asko ikasi dugu gertatutakoaz, ez gara geldirik egon eta datorren denboraldirako gogo biziz gabilta. Urte berezia izango da hurrengoa, klubak bost urte beteko ditu irailaren 2an eta gure taldeentzat 5. denboraldia izango da.

Denborarik galdu gabe, ekainean ate irekiak egin ditugu eta bide batez datorren denboraldirako taldeak antolatzen hasi. Baina gure atek zabal-zabalik jarraitzen dute edozeinentzat.

Datorren denboraldirako ere gure entrenamendu-orduen eskaintza mantenduko dugu:

*Benjaminak (2012-2013): asteartean, 16:45-17:45.

*Alebinak (2010-2011): asteartean, 17:45-18:45.

*Infantilak (2008-2009): astelehenean, 17:30-18:45; ostegunetan, 18:45-20:00.

*Kadeteak (2006-2007): astelehen eta asteazkenetan, 18:45-20:00; ostiraletan, 17:00-18:00.

*Juniorrak (2004-2005): astelehen eta asteazkenetan, 20:00-21:15; ostiraletan, 18:00-19:00.

*Seniorrak (3. maila): asteartean, 18:45-20:00; ostiraletan, 20:00-21:15.

*Seniorrak (1. maila): astearte eta ostegunetan, 20:00-21:15; ostiraletan, 19:00-20:00.

Momentuz taldeak mutilenak badira ere, infantiletan badaude bi neska eta alebinetan ere bada neska bat. Hori aprobetxatu nahi dugu neskentzat ere atek zabalik daudela aipatzeko, eta gogorazteko prest gaudela beraiantzat ere taldeak sortzeko.

Esan bezala, atek edonorentzat daude zabalik. Kontaktuan jartzeko deitu 621 01 93 83 telefono zenbakira edo idatzi debasket@debasket.eus helbidera.

Debasket Saskibaloia Kluba

Musikaren suaz gaitz guztiak uxatzen, Ekilarre jaialdia azken txanpan

Iritsi gara dagoeneko Ekilarre musika jaialdiaren azken txanpara. Azken Sustraiak eta Unidad Alavesa taldeek itxiko dute jaialdia ekainaren 25ean (ostirala). Orain arte zumardiko karpako giroa ondoto berotu dute bertaratu diren taldeek eta, egia esan, bagenuen premia! Oholtzatik Gozategi, Skabidean, Debrass Band, Brigade Loco eta No Limits taldeak pasa dira eta publikoak harrera beroa egin die guztiei.

Antolatzaileok ere oso gustura

gaude jaialdia ematen ari denarekin; izan ere, 160 sarrera saldu ziren lehenengo kontzerturako eta gainontzekoetan aforoa guztiz bete da (200 lagunekin).

Era berean, lerro hauetatik gure eskerrak bidali nahi dizkizuegu antolakuntza-lanetan turnoak eginez, materiala salduz, eta bestelako zereginetan lagundu duzuen boluntario guztioi, zuei esker soilik izan baita hau posible. Mila esker guztioi!

Negudak-Ekilarre



IRAIA AGIRREZABALA

Naturari so

Betidanik lagundu izan dit inguruari, inguratzen gaituenari, naturari begiratzeak.

Umetatik izan dut natura gertutik sentitzeko suertea eta gozaten jarraitzen dut inguruak oparitzen dizkigun usain-koloreekin.

Herrian bizi naizenez, ez baserrian, naturari so egoteak lagundu izan dit, besteak beste, urtaroen joan-etorriez ohartzten, herriguneko kimatzeek ez baitute horretan laguntzen. Aitaren errautsak lurperatzeko momentuan, alaba txikiari bularra eman bitartean gunean bertan zuhaitzak hazten ikustea ere argigarria izan zen. Bizitzaren zikloa bertatik bertara; jaio eta hil.

Orain bizitzen ari garen kaos honen gainetik, enarak ere, urtero bezala, bueltan dira; itzuli dira euren hegaldi aske eta jostariarekin eta euren akrobaziekin inguruko eltxo eta euliak jatera. Igor eta biok baratzean ginela, pasean nola etorri ziren ikusi ahal izan genuen. Momentu magikoa izan zen.

Eta jarraitzen dute udaberriarekin batera marrubixto basatiek bide bazter eta txoko berdeak koloretzatzen. Almitzean bata bestearen atzetik sartu eta katea osatu ondoren multzoa ahoratzean zapore mikatz-gozoa barrura. Momentu askoren zaporea.

Eguna mozten hastean, berriz joango dira enarak leku epelagoetara, hurrengo udaberrira arte. Agian mundua geldituko duen pandemiaren bat egongo da, baina eurak bueltatu egingo dira.

Badirudi gaur egun gauza batek garrantzia izan dezan pantailaren batean agertu behar duela, eta bide horretan bizitzaren zentzua galtzen delakoan nago. Burua jaso eta naturari so, zenbat oparitxo!

Kadeteen lehen mailako finala irabazi dute Amaiak Bateko neskek



Ekainaren 12an, larunbata, Amaiak Bateko neska kadeteek Gipuzkoako txapelketako finala jokatu zuten Iraetan Azeitiko Lagun Onak taldearen aurka eta, 1-0 emaitzarekin, garaile atera ziren.

Eguerdi partean, harrera inprobisatu beroa egin zieten herritarrek udaletxeko arkupeetan. Ondoren, kopa eskuetan zutela, taldeko kide gutxi batzuk igo ziren eraikin horretako balkoira eta bertan zintzilikatu zuten taldearen bandera.

Markel Beristain Gipuzkoako trainerilla txapelketako txapeldun

Zumaiako Telmo Deun elkarteak Gipuzkoako Trainerilla Txapelketa irabazi zuen maiatzaren hirugarren asteburuan, eta taldekideen artean lasturtar bat zegoen, Markel Beristain, Lasturko Arruanzahar baserriko gaztea.

Getarian jokatu zuten finala eta jubenil mailako gizonen Zumaiako ontziak irabazi zuen lehia, nagusitasunez (16:21:92), bigarren sailkatu zen San Juan ontziari hogeitasegundoko aldea atera baitzion; Hibaika izan zen hirugarren (19:16:62).

Astebete beranduago, Euskadiko Txapelketaren finala jokatu zuten Zumaiako jubenil taldeko arraunlariek Legutioko Urrunaga urtegian eta laugarren sailkatu zen Zumaia (14:51:53).

98 herrialdetako 1502 film labur aurkeztu dituzte irailean egingo den Animaziozko Nazioarteko Zinema Jaialdirako

2021eko irailaren 8tik 11ra bitartean Deban ospatuko den Animaziozko Nazioarteko Zinema Jaialdiak bere 14. ediziorako izen-emate epea itxi du.

Maiatzaren 4an amaitu zen film laburrak aurkezteko epea eta Sail Ofizialean eta Zuzendari Berriak-EHU atalean lehiatuko dira. Guztira, 98 herrialdetako 1502 film labur aurkeztu dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

14. edizio honetako filmak ikusteko batzordea 14 debarrek osatu dute. Datorren hilabetean, antolakuntza hautatutako guztiekin jarriko da harremanetan atal bakoitzerako aukeratutako hamar film laburren proiektzio-artxiboa eskatzeko.

Animadeba Euskal Herriko animaziozko zinemaldirik zaharrena da, ibilbide luzeena duena, eta 2019ko edizioan izen handiko nazioarteko zinemaldi bilakatu zen; geroztik hainbat jaialditan dago presente, hala nola Annecyko Nazioarteko Animazio Zinemaldian, Frantzian.

Osasun-krisiaren ondorioz, ia zko edizioa erdibidean geratu zen, baina aurten "erronka berriekin eta ilusio handiagoarekin" dator Animadeba.

Hona hemen edizio honen erronketako batzuk: jaialdi eskuragarria eta segurua eskaintzea, beharrezko segurtasun-neurri guztiekin; ingurune eta ingurumenarekin konprometitua; aurrez aurrekoa eta pantaila birtualerako aukeraz, publiko guztiari eta garai berriekin egokitua.

Datozen hilabeteotan iragarriko diren berrikuntza ugari izango ditu Animadeba 2021ek. Aurten, gainera,



2019ko edizioan ateratako irudia.



Debako zenbait dendatan Animadebaren poltsa eta botila berrerabilgarria jarriko dira salgai (festibala aurrera ateratzeko erabiliko dira irabaziak). Eta Animadebako bazkide egiteko aukera ere egongo da, "abantailaz josia".

Era berean, jaialdiak boluntarioen beharra izango du laster. Laguntzeko prest daudenek edota informazio gehiago nahi dutenek, ondoko bideak erabili ditzakete antolatzaileekin harremanetan jartzeko: info@animadeba.com, www.animadeba.com, Instagram: [@animadeba](https://www.instagram.com/animadeba).

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Informatika Tresneria informatikoa

JLC

Elektronika Osagai elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Herriko odol-emailei esker onak eman eta intsignia banatu zaie



Odol-emaileentzat urteko une garrantzitsua izan ohi da emaleei esker onak emateko ekitaldia. Duela 25 urte, zonalde bakoitzean hasi behar izan ziren intsigniak eta esker onak emateko ekintzak egiten, ez baitzegoen 1.000 pertsona baino gehiago har zezakeen lekurik. 2020an ezin izan ziren elkartu, eta 2021 honetan, zailtasunak zailtasun, maiatzean, delegazio bakoitzean banatu dituzte Gipuzkoa osoan intsigniak eta esker onak. Aurten, Gipuzkoan, 496

emalek jaso dituzte esker onak.

Deban ere ekintza xumea izan zen kioskoaren parean egin zena. Milaka pertsonak urtero Gipuzkoan egiten duten odol-ematearen irudikapena izan zen, isilean, modu anonimoz eta trukean ezer espero gabe. Hamar lagunek jaso zituzten intsigniak eta esker onak: 25 aldiz ematearren Nerea Agiriano, Santiago Agirre, Ainara Ilarramendi, Enara Iriondo, Angel Iriondo eta Onintza Rodriguezek; 40 aldiz ematearren Inma Alberdik; 60 aldiz ematearren Carmen Lazcanok; 75 aldiz ematearren Isidro Aristik; eta, azkenik, 100 aldiz edo gehiagotan ematearren Jose Antonio Ostolazak.

Deban bezala, Itziarren ere beste bi herritarrek jaso dute errekonozimendua. Xabier Alberdi "Beltza" da horietako bat, odola 100 aldiz baino gehiagotan eman izanagatik, eta Soarteko Mariluz Errasti bestea, 60 emanaldi baino gehiagorekin.

Carmelo Urdangarin ekonomialari, idazle, enpresari eta kultur gile debarra hil da

Maiatzaren 14an hil zen Carmelo Urdangarin Altuna Zumaian. Debarra izanagatik, eskualde osoari egin dion ekarria handia izan da; ekonomialari, idazle, enpresari, eta kultur arloko ekintzaile ezaguna izan da. Peritu eta merkataritza-irakasletza ikasketak egin zituen. Aranzadi Elkartearen, Eusko Ikaskuntzaren, eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoaren Fundazioko partaidea ere izan zen.

Ekintzailea zen, baina guztiaren gainetik, herrigintzari estu lotutako gizona. Gure Balioak Saria eman zioten 2013an, sariaren IV. edizioan, eta gaztetatik erakutsitako lankidetzarako gaitasuna nabarmendu zuen epaimahaiak.

Historia eta etnografiaren oso zale izanik, liburu ugari idatzi zituen Deba eta eskualdeko historiaren eta, bereziki, eskulangintza eta ofizio tradizionalen inguruan. Honako hauek, besteak beste: *Deba: Euskal Kosta Nuklearra* (1975), Jose

Ramon Rekalde eta Francisco Aldabaldetrekurekin batera; *Testamento de Ostolaza* (1976); *Deba Ayer. 260 Fotografias* (1977); *Trenbidea Debara heldu zeneko lehen mendeurrena-[1893-1993]* (1993), Jose Maria Izaga eta Manuel Zaragozarekin batera; *Zezen nafarrak Debara egindako azken bidaiak* (1996), Izagarekin batera, *Oficios tradicionales de la cuenca del Deba* (2009), Izagarekin batera; eta *EZ, EZ, EZ. Debako zentral nuklearraren kontrako mugimendu herritarraren historia* (2016), Tene Mujika bekaren irabazlea, Izaga eta Pako Salegirekin batera.



Urdangarin, Gure Balioak Sariarekin 2013an.



RIKARDO IDIAKEZ

Debatea

Bakarren batzuk pozik egongo dira, agian, iritzi publikoa deritzon horren pean nagusi dugun ezerezaren hausnarrari begira. Lehen ere zimel samar genbiltzanean, gaixoaldiaren beldurraren beldurrez, bozgorailuetatik entzuten ditugun mezu errepikakorrek elkarri mokoka aritzera soildu dugu gure esperantza.

Ez dira inoiz garai onak izan ekidistanteontzat. Kuriosoa da, aldiz, urte luzeetan besteri sistematikoki ausardia falta egozten jardun duten horiek zeinen nabarmen dabiltzan, horren kikil, horren ikarati, *mainstream*-aren babespean.

Beldurra berezko dugu ordea, eta jasaten ari garena ez da harritzekoa, bai, aldiz, kezagarria: ditxosozko birusa sekulako pagotxa bihurtu zaie bakarren batzuei. Ez beldurra hezurretaraino sartu digutelako (soilik), gaitzak sendagai bakar eta ahalguztiduna duela sinestarazi digutelako baizik. Eta ez naiz birusaren gaitzaz ari: ertzik ametitzen ez duten egia absolutuen gailentzearen gaitzaz ari naiz.

Erraietarainoko ikara eragiten dit debate sozialean eman dugun atzerapauso itzela ikusteak, pentsamendu kritikoa hutsaren pareraino ekarrita, gero eta lubaki atomizatuagoetan, itota, titular masiboen bueltan, hitz eta pitz.

Izango da esperantzarako ahotsik, bai, baina ondo ezkutarazi zaituztete, alajaina: debate sozialaren muina "Pfizer ala Astrazeneca" dikotomiara mugatzeraino. Benetan inportantea zaigun horri bizkarra emateraino.

Agian, iritsi da ekidistanteon garaia.

Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta-martxa Deban



Debara maiatzaren 27ko arratsaldean iritsi zen pentsiodunen aldarrikapenen aldeko bizikleta-martxa, Mutriku aldetik, "Pentsio publiko duinak! Murrizketarik ez!" lemapean. Deba-Itziarko Pentsiodunak taldearen ekimenez, harrera beroa egin zitzaizen iritsi zirenean eta, herriko kale nagusiak zeharkatu ostean, ekitaldia egin zieten plaza zaharrean. Bertan, hainbat herritarrek hartu zuten hitza oholtza gainean, eta trikitilari, txistulari eta Jokin Lasa musikariak girotu zuten hitzordua.

Aldats pilotalekuan gaua pasa ondoren, hilaren 28an, goiz partean abiatu ziren Zumaiarantz.

Deba-Itziarko Pentsiodunak taldeak bat egin zuen maiatzaren 29an Euskal Herriko hiriburuetan burutu ziren manifestazioekin ere. 18.000 lagun bertaratu ziren mobilizazioetara.

Martxan dira Ondarbeltzera oinez iristeko pasealekuko lanak, baita zubikoak ere

Maiatzaren hirugarren astean hasi zituzten Mutrikuko Ondarbeltz hondartzako aparkalekua eta Urazamendik kaleko 10. atariaren aurrea batuko dituen oinezkoen pasealekuko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek zehaztu dutenez, lanak Construcciones Moyuari esleitu dizkiote eta urrirako amaituta egongo dira. "Bost lizitazailereren eskaintzak aztertu ondoren, euren eskaintza onartu da. 416.555,01 euroan onartu da esleipena eta 20 asteko exekuzio-epea du. Maiatzaren 13an hasi ziren lehen lanekin eta irailaren 29rako amaituta egotea aurreikusten da".

460 metro edukiko ditu pasealekuak eta estuarioaren ibilbidea jarraituko du. Reiner enpresa zenaren eraikina dagoen atzealdeko eremuan hasi dira makinak lanean. "Tarte hori, hain zuzen, obra honek duen zailtasunik handieneko gunea da. Oinezkoentzako bidea egiteaz gain, kolektore berriko hodia ere bertan txertatuko da; hodi hori gaur egun dagoen ur zikinaren sarearekin lotuko da gero".

Deba eta Mutriku arteko zubia

Zubiko lanak apirilaren 14an hasi ziren arren, maiatzaren 26an lanoi buruzko hitzaldi bat eman zuten Debako udaletxean. Solasaldi horren helburua izan zen Deba eta Mutrikuko herritarrak informatzeko obra horiek egunerokoan eragin ditza-



keten gorabeheren gainean.

Hitzaldian parte hartu zuten Deba eta Mutrikuko alkate Gilen Garcia eta Joseba Palenzuelak, Kulturako foru zuzendari Mari Jose Telleriak, eta Ingelán eta Fhecor enpresetako obra-zuzendari Francisco Javier León Gonzálezek.

Leónek informazio zabala helarazi zien bertaratu zirenei. Zubiaren historia labur kontatu ostean, honakoez aritu zen: birgaitzea, proiektatutako jarduketak, lanek sortutako eragozpenak, egutegia eta aurrekontuak.

Obra-proiektuak helburutzat dauka zubiaren egonkortasuna bere osotasunean bermatzea, eta gainera, zubiaren instalazioak eta urbanizazioa hobetzea, bi ibaiertzen artean dagoen oinezkoen komunikazioari ahalik eta denbora luzeenean eutsiz. Aurreikusten da obrak 10 hilabete barru bukatzea.

Hitzaldia grabatu egin da eta ikusgai dago Udalaren YouTubeko kanalean.

iritzia



PATXI AIZPITARTE

Amaitu berria dut Mikel Ayestararen "Jerusalén, santa y cautiva" liburuak. Beasaindarra jaiotzez, Hiri Santuan bizi izan da azken sei urteotan bere emazte azpeitiarrarekin eta seme-alabekin. Nabaritzen da kalez kale ezagutzen duela hiriburua eta kontaktu asko dituela bertan. Hiri Zaharretik berehala dagoen Musrara auzoan dute etxebizitza eta hortik hurbil dago judutar ultra erlijiosoaren Mea Shearim auzo sonatua, duela bi urte alde batetik bestera gurutzatu genuena "Ambassador" hotelera bidean.

"Yerushalayim" edo "bakearen hiri" judutarrentzat, "Al Quds" edo "santua" musulmanentzat; hiriak Ayestararen maitasun-aitormena jasotzen du amaitzerakoan, eta urteotan emandako guztia eskertzen dio. Presentzia berezia dute hirian hiru erlijio nagusiek: islamak, judaismoak eta kristautau-

sunak. Iraganak hain garrantzi handia duelarik, kilometro karratua besterik ez den Hiri Zaharrak judutarren presio gogorra jasaten du, bertako jaun eta jabe egitea baita beren azken helburua, Tenpluaren Mendia bereganatzea amets.

Kuriosoa egin zait Jerusalemeko familia antzinakoen historia eta presentzia ikustea mendeetan zehar; armeniarrek, koptoak, eta musulmanak dira, besteak beste, eta badituzte bertan liburutegiak, kafetegiak, artisau-tailerrak, argazki-dendak eta abar. Testigantzen arabera, horietako batzuk nahiko etsita dabilta, judutarrek aurrera egiten baitute. Kristau gehienek ere, palestinarrak izanik, atzerrira jo dute (egun ez dira % 1,7 besterik). Merezi du Ayestararen liburuak, dokumentatua, jantzia eta atsegina baita.

Mikel Ayestaran

Deba-Itziar

BIRA



MAIATZA BIRA | SARIDUNAK



Angel Mari Galindez
Mari Jose Becerra
Miren Itziar Galarraga
Mirian Arrizabalaga
Karlos Larramendi



Goizane Ajuriagoikoa
Intza Irazu
Oihana Esnaola
Mari Seara
Maitane Morcillo

Irune Hernandez
Maddi Ciaran
Mari Jose Aldalur
Maite Aizpurua
Alazne Txurruka

*Produktuak 2021/07/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

EKAINEKO BIRA:



1. Antzerki Astearen zenbatgarren edizioa antolatu da aurten?



2. Non dago ezkerreko argazkiko karobia?

- A) Lastur inguruan
- B) Santuanen
- D) Urasandirako bidean
- E) Artzabalen



3. Zein izan zen erraldoiak sortu zituen artista debarra?




6. Zein da Unai Osak Itzuli Handi batean inoiz lortutako posturik onena?

- A) 4. postua Frantziako Tourrean
- B) 3. postua Italiako Giroan
- D) 2. postua Espainiako Vueltan
- E) 1. postua Frantziako Tourrean



5. Nor izan da aurtengo Deba 100 hitzetan literatur sariketako euskarazko ataleko sari orokorraren irabazlea?



6. Nola deitzen da kanaleko bidean aurkitzen den leku hau?

- A) Sorgin zulo
- B) Lapur zulo
- D) Aker zulo
- E) Azurkiko zuloa

PARTE HARTZEKO:

www.labor.eus/BIRA_ekaina

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Nieves Maidagan
artisauak egindako
1 motxila / 1 poltsa
banatuko dira

Nieves Maidagan
artisauak egindako
10 giltzatak
banatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **uztailaren 7a**

Irabazleen izenak uztaileko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**



600 BAZKIDE BEHAR DITU ZUHATZAK AURRERA EGINGO BADU

Herritarrentzako bilera irekia iragarri du uztailaren 1erako, 19:00etan, Kultur Elkartean

Azken hilabeteotan, Zuhatza Euskara Elkarte herritarroei egun daukan egoera ekonomiko zailaren berri ematen saiatu da bide desberdinetatik. Kartelak, pankartak, esku-orriak, buzoneaketak, bilerak... ez du eten handirik egin. Laster, uztailaren 1ean (osteguna), 19:00etan, bilera egingo du herritar guztiei zuzendua, informazioa zabaltzen jarraitzeko. Izan ere, egoera iraultzea lortzen ez badu, elkarteak desagertzeko zorian ikusten dute kideek.

Elkarteak erronka jarria dio bere buruari: 600 bazkide egitea. Kopuru horretara iritsita, haien ekarpen ekonomikoari esker, urteotan abiatu nahi zituzten proiektu eta asmo berriei heldu ahal izango dietela uste baitute.

Nola iritsi da Zuhatza Euskara Elkarte hona?

2019. urtean orain arteko egitasmoei eutsi (Kolore Anitz aisialdi taldea, haurrentzako ekimenak, kultur ekimenak, Mintzlaguna, *Berriketan* aldizkaria, literatur lehiaketak...) eta

garai berrietara egokitzeko premia ikusi zuen elkarteak; gizartearen beharrei erantzuteko.

Horrek, besteak beste, proiektu komunikatiboa sendotu eta aldizkariaren web-orria sortzea eskatzen zuen, eta, beraz, lantaldea bera indartzea. Gastu gehigarriak izango ziren, bai, baina berrikuntza horiek egin ezeari desagertzeko arriskua zuela ikusita, erronkari heldu zion.

Elkartearen diru-sarrerak bi eratakoak dira: publikoak (diru-laguntzak) eta propioak (autofinantzaketa bidezkoak). Azken horiek, diru-sarrera publikoen % 30 izan behar dute, gutxienez.

Elkarteak proiektu berriaren aurrekontua administrazioei aurkeztuta, diru-sarrera publikoak handitzea lortu zuen, baina horrek sarrera propioak gehitzea ere bazekarren. COVID-19a iritsi zen, ordea, eta aurreikusitako ekimen ugari bertan behera gelditu ziren. Era berean, publizitate jaitziera izan zuten herri aldizkarian.

Berriketan aldizkariako
zutabegile
izan nahi duzu?



Zeresana izango duzu eta gu prest
zure iritzia zabaltzeko

Batu zaitez zutabegile sarera!
632 043 322 | berriketan@zuhatza.com



Autofinantzaketa-iturriak espero baino askoz txikiagoak izanirik, elkarteak kolokan izan zituen hainbat diru-laguntza. Ondorioz, 2020a 4.000 euroko galera ekonomikoekin bukatu zuen. 2021. urteari dagokionez, gauzak okerrago ikusten dituzte zuzendaritzako kideek eta egoera iraultzea lortu ezean, Zuhatzak urtea 16.000 euroko diru-galerekin amaitu dezake.

Egoera nola desblokeatu?

Bazkide-kanpaina eta publizitate-kanpaina indartsuak martxan izateaz gain, autofinantzaketa-bide berriak lantzen dabil Zuhatza; materiala saltzen eta herri-ekimen berriak sustatzen. **Besteak beste, uztailaren 3an (larunbata), elkartearen aldeko bertso saioa izango da zumardiko karpian;** Oihana Iguaran, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi arituko dira oholztan, 19:00etan (ate-irekiera 18:30ean).

Aldi berean, egoeraren berri emateko eta laguntza lortzeko azken hilabeteetan herriko 19 eragile eta alderdi politikorekin elkartu dira Zuhatzako kideak eta gustura agertu dira jasotako erantzunarekin. Ildo horretatik, aurrera begira, informazio zehatz eta herritar orori helarazteko eta iritzi edo ekarpen berriak jasotzeko asmoz, **bilera irekia egingo dute uztailaren 1ean, 19:00etan, Kultur Elkartearen, nahi duena bertaratu dadin.**

Abiatzear dira Kolorez Blai euskal udalekuak

170 partaide izango dira, bi txandatan banatuta



2019ko udalekuetan ateratako irudia.

Uztailaren 5ean abiatuko da Kolorez Blai euskal udalekuetako lehenengo txanda uztailaren 16ra arte (2013-2015 artean jaiotakoek hartuko dute parte). Bigarren txanda, berriz, uztailaren 19tik 30era artekoa izango da (2009-2012 artean jaiotakoentzat). Astelehenetik ostiralera egingo dira udalekuak, 9:30etik 13:00era.

Iazko etenaren ostean, aurten 170 hurrek eman dute izena udalekuetan, eta guztiak izan dira onartuak; dagoneko jakinarazi zaie gurasoei. Orain bi urte bezala, Miren Berasaluce arituko da aurten ere koordinatzaile-lanetan, eta hamasei lagunek osatuko dute begiraleen taldea.

Gurasoentzako bilera informatibo bat egingo da online uztailaren 2an, 19:00etan, udalekuen inguruko xehetasunak eman, eta sor litezkeen zalantzak argitzeko. Honakoa da bilerarako esteka: www.labur.eus/koloreanitzbilera.

MAIATZEKO
ZOZKETA
IRABAZLEA:
MAITE
ESNAOLA
YURRITA
ARRAIN KONTSERBEN
PRODUKTU SORTA
Zuhatzak euskara
m.m.c. deba elkarte

EKAINEKO
ZOZKETA
ZUHATZAKO BAZKIDEEN ARTEAN
ERRIGORA KO
PRODUKTU SORTA
DEBAROCK KOLEKTIBOAREN
"HAMAR URTE" DISKOA
ZOZKETA EGUNA:
EKAINAK 25, OSTIRALA
FACEBOOK BIDEZ
Zuhatzak euskara
m.m.c. deba elkarte

EUSKERAZ BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



AINARA ARANBERRI

42 urte

Zuhatzaren *Berriketan*-ek Deban hemen eta orain gertatzen ari dena eta gertatutakoa euskara dotore eta txukunean azaltzen digulako. Zehazki, haur, gazte, heldu, herri, eskola, kultura, eta beste hainbat errealiteren ikuspegiak modu serio baina dibertigarrian, eta betiere tonu eta euskara egokian, jorratzen dituelako. Eta, nola ez, gaien trataera irakurterrazari esker gaztetxoek ere euskaraz irakurtzera animatzen dituelako. Zorionak, Zuhatza!

INA OIARTZABAL

54 urte

Euskaraz biziz komunitate edo nazio baten partaide sentitzen naiz, baina urteetako akulturazio prozesuarengatik hori kinka larrian ikusten ari naiz. Azken hilabeteotako hiru gertaera gure agintarien ahultasunaren adierazgarri dira: buru edo bozeramaile elebakarrak onartzea; ertzain izateko azken OPEko lanpostuen % 34ek euskararik ez eskatzea; eta euskal taldeen arteko azken futbol finalean, Eusko Jaurlaritzak babestutako Euskal Futbol Selekzioaren aldeko pankartarik erakusteko indarririk eza. Horren aurrean, euskara eta euskal kultura akuilatzeke, erabileran eragiteke eta komunitatea trinkotzeko, Zuhatzak ezinbesteko izaten jarraitzen du. Ahalegin horretan beti izango nauzue alboan.



EIDER ALDALUR

26 urte

Onartu beharra daukat, hilero *Berriketan* aldizkaria goitik behera irakurri arren, orain gutxi egin naizela Zuhatzako bazkide. Parean tokatu ez zitzaidalako, beharbada, ekonomikoki independentea ez nintzelako, agian, edo honi buruz gehiegi hausnartu ez nuelako, ziurrenez. Hala ere, konturatu naiz herrian euskaragatik eta euskaraz herrigintzan jarduten duen elkarte bat izatea garrantzitsua dela, eta horri sostengu emateko ezinbestekoa da bazkide izatea. Beraz, oraindik bazkide ez bazara, zeren zain zaude?

JOSE RAMON ZULAIKA

69 urte

Euskararekiko ardura beti izan dut eta daukat, horregatik hasiera-hasieratik naiz Zuhatza Euskara Elkartekeo bazkide. Lehenago ez dut asti handirik izan baina jubilatua naizetik hurbilagoetik saiatu naiz Zuhatzarekin elkarlanean aritzen, esate baterako 2016 urtean egin zen gogoeta prozesuko taldeetan parte hartuz, edo bestelakoetan behar izan denetan laguntzen saiatuz ere bai.



Nerea Loiola: "Irakurleak neu aurkituko nau liburuan, eta bere burua ere aurkituko du, edo hori nahiko nuke nik behintzat"

2018an plazaratu zuen bere lehen liburua haur literaturan, *Harri bat poltsikoan*; eta urtebetera, bigarrena, *Azken lanhütarra*. Oraingoan, aldiz, irakurle helduei zuzendutako narrazio bilduma kaleratu du Nerea Loiola Pikazak (Deba, 1985), *Epizentroa* izenburuean eta Ereinek babesturik.

Hirugarren liburua duzu hau, Nerea. Zer dakarzu oraingo honetan? Zer aurkituko du bertan irakurleak?

Hirugarren liburua da, bai; lehendabizikoa helduentzako literaturan. Narrazio bilduma batekin egin dut jauzi alor horretara. Irakurleak neu aurkituko nau bertan, eta bere burua ere aurkituko du, edo hori nahiko nuke nik behintzat. Maitasuna, desioa, sexua, gurasotasuna, zorientasunaren eraikuntza, nahiak-ardurak-ezinak; giza harremanen ardatzen jiran aritu naiz.

Zazpi ipuinez osatutako lehen narrazio bilduma duzu. Nolakoa izan da sormen-prozesua? Hasieratik argi zenuen liburuaren egitura?

Bai eta ez. Hasieratik garbi neukan narrazio bilduma bat izango zela; izan ere, sormen beka bat jaso nuelako abiatu nuen proiektu hau. Beka hura jasotzeko beharrezkoa zen proiektuaren proposamen bat aurkeztea. Ez nekiena zen zenbat ipuinekin osatuko zuten, ezta nolako luzera edo ezaugarriak izango zituzten ere. Sorkuntza-prozesuan zehar joan da forma hartzen, erabakiak hartu ahala, erabakiak hartzera ausartu ahala; oso bide ederra izan da, eta emankorra.

Bada hari ikusezin baina nabari bat istorio guztiak lotzen dituen?

Ez dago istorio guztiak lotzen dituen haririk. Ipuin bakoitza leku desberdin batetik idatzi dut, espazio autonomo bat eman diot, bere erara izaten eta hazten utzi. Bukaeran, ordea, ikusi dut bada-goela pertsonaia guztiak amankomunean duten zerbait (guztiak emakumezkoak izateaz gain), eta erabakiekin du zerikusia zerbait horrek. Liburuaren atzeko azalean esaten den moduan, gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabaki horiek benetan gauzatzearen artean dagoen amildegian kokatzen dira sarri ipuin hauetako pertsonaia.

Kontakizunetako batek eman dio izena zure liburuari: "Epizentroa". Zergatik izenburu hori?

Garbi ikusi nuen idazketa-prozesua bukatu eta liburuaren osotasunari erreparatu nionean, pertsonaia guztiak bazutela zerbait amankomunean: lurrikara bat gertatzen ari zen beraien bizitzetan edo izandako lurrikara baten erreplikak sentitzen ari ziren. Lurrikara baino hitz egokiagorik dardara eragiten diguten bizipen horietarako?

Zer diozu liburuaren azalaz?

Azala brutala iruditzen zait. *Asteazkenak Komandoak* egindakoa da, Jon Aranguren eta Maddi Zumalabek. Album ilustratuen sorkuntzarako egonaldi batean ezagutu nituen eta beraien estiloarekin konektatu nuen hasieratik. Neure kabuz sekula helduko ez nintzatekeen lekuetara iristen naiz beraiekin. Azalerako zerbait soila eta aldi berean adierazgarria nahiko nukeela esan nien, eta hortxe beraien proposamena: harriak oztopatzen du inbutua edo inbutuak harria?



Jaurlaritzaren laguntza izan duzu proiektua aurrera ateratzeko...

Bai, hala da. Kultur sormena bultzatzeko diru-laguntza batzuk ateratzen ditu urtero Eusko Jaurlaritzak eta horietako diru-laguntza bat jaso nuen duela bi urte proiektu hau gauzatu ahal izateko. Bultzadatxo ekonomiko polita da, denbora tarte txiki batez beste lanak albo batera utzi eta idazketan zentratu ahal izateko behinik behin. Duela hilabete eskas jakin dut gazteentzako eleberririk bat idazteko beste diru-laguntza bat ere eman didatela!

Haur eta gazte literaturan ez ezik, orain helduentzako literaturan ere bai. Eroso esparru orotan?

Lehendabizi kontatzeko zerbait izaten dut neure buruan eta forma pixka bat hartzen duenean erabakitzen dut zein publiko motarentzako izango den, eta ez alderantziz. Atera zitzaizkidan lehen istorioak gaztetxoentzako ziren eta hala bideratu nituen. Gero, konturatu nintzen banituela kontatu beharreko beste batzuk helduentzako zirenak, eta horretan jarri nintzen. Eta eroso sentitu naiz, gozatu dut idazketa-prozesuaz. Hala ere, aitortu behar dut kostatzen zaitza zela lehen pausoa ematea, hau da, nire buruari permititzeko helduentzako izan zitekeen zerbait idaztea; baina, behin atea zeharkatuta ez dut atzera egingo!

Hiru semeren ama eta Bigarren Hezkuntzako Matematikako irakaslea lanbidez. Nola egiten diozu leku hori literaturari?

Ahal dudan moduan, nahi baino tarte txikiagoak eskainiz, desordutan askotan... Gustuko gauzentzako denbora ateratzen dugu nola edo hala. Bikotea eta biok trebatuta gaude aste-antolaketa efizienteak egiten, *kar-kar*, hiru haurrekin ezinezkoa litzateke bestela!

Zer asmo aurrera begira, Nerea?

Asmoa? Idazten jarraitzekoa, ikasten jarraitzekoa, dardara sortzen didaten gaiei heldu eta esperimentatzeko. Gaztetxoek liburuak sinatzerakoan jartzen didan moduan, aurrera, beti aurrera!

**"Idazten,
ikasten
jarraitzea da
asmoa, dardara
sortzen didaten
gaiei heltzea"**



GOIMEK: doitasuna mekanizazioan; konpromisoa komunitatean

Goimek-ek 15 urte darama Itziarren eta zehaztasun handiko mekanizazioan erreferente da dagoeneko hiru bezero nagusirekin: eremu aeroespazialekoak, energia alorrekoak eta ekipo ondasunekoak. Ondare kooperati-

boan sinesten du, eta hurrengo belaunaldiei kooperatiba sendoagoak eta hobekuntza gehiago, etorkizunerako garapen eredu hobea ere laga nahi die. Bide horretan, langileek modu aktiboan hartzen dute parte.

Aski ezaguna da makina-erremintaren alorrak bailara osoan duen indarra. Debabarrena eta Debagoiena erreferente bihurtuak dira ez soilik Euskal Herri mailan, baita Espainian, Europan eta mundu mailan ere. Ez daude alferrik jatorria bailara honetan duten kooperatiba eta filialak mundu osoan zehar barreiatuak.

Alorrean hamabost urte daraman Goimek da horietako bat. Mallabian eta Itziarriko industrialdean kokatutako enpresa da Goimek eta, beraz, inguruko 82 herritarri bizibidea eskaini ez ezik (20 laguni Mallabian eta 62ri Itziarren), kokatzen den ingurune hainbat proiektu sozial ere hauspotzen ditu, urtero izaten dituen irabazien ehuneko

bat gertuko gai sozialak laguntzeko erabiliz.

2006an sortu eta, artean enpresa gaztea zela, Goimek berehala bihurtu zen makina-erremintaren munduan erreferente doitasuneko mekanizazio eta mekanizazio-prozesu aurreratuetan. Urteetako esperientzia du sektore esijenteetako pieza estrategikoei lanean, eta horri esker soluzio pertsonalizatuak diseinatzen ditu bezero bakoitzaren premietara egokituak.

Hiru eremu nagusitakoak dira bere bezeroak: eremu aeroespazialekoak, energia alorrekoak (eolikoa bereziki) eta ekipo ondasunekoak (makina-erremintaren sektorea).

Talde bat, filosofia bat

Horrez gain, sorreratik, makina-erremintan eta fabrikazio aurreratuan espezializatuta dagoen Danobatgroup industria taldeko kide da; bailara osoko sei enpresak osatzen dute Danobatgroup: Danobat, Soralue, Latz, Goiti, Ideko eta Goimek berak.

Aldi berean, Mondragon Korporazioaren parte da Danobatgroup. Mondragon Korporazioak, berriz, 96

kooperatiba, 146 filial eta 81.507 pertsona biltzen ditu bere baitan.

Badira hainbat urte Danobatgroup-ek, eta bere lan-filosofia partekatzen duten taldekideek, Goimek-ek barne, gizarte eta kultur gaiei ekarria egiten diela; izan ere, enpresok hainbat ekimenekin ari dira elkarlanean, nor bere jardueraren eremu geografikoan. Bestek beste, ekonomia soziala sustatzea eta laguntzea du taldeak xede, eta horretarako honakoak bultzatzen ditu: heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatibo eta profesionala, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak, elkartasuna eta interkooperazioa, eta ikerketa eta garapena. Horiez gain, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak ere babesten ditu, ekimenen alde eginda.

Egun, pandemiaren ondorioz, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin eta Elikagaien Bankuarekin dihardu lankidetzan; ordenagailuak banatzea eta Internetarako konexioak instalatzea, ambulanzietarako desinfekzio-sistemak ezartzea, familia ahulentzako elikagaiak banatzea edo adinekoentzako telefono bidezko laguntza eskaintzea dira diruz lagundutako ekimenetako batzuk.



“Osatzen dugun gertuko komunitatearen zati aktibo gara: zerbitzua emateaz gain, elkarlanean dihardugu”

Francisco Javier Fernandezek Goimek-en darama bizitza profesional osoa, tailerreko pintura-arduradun da orain, eta Goimek-eko lehendakari 2020ko urritik. Azken urteotan Deba eta Itziarko herrigintzari zuzenean eragin dio enpresak, izan ere, berau kokatzen den eremu geografikoan dabiltzan kultur mailako eragile eta kolektibo sozialekin lankidetzaren estuan dihardu.



Badirudi 15 urte hauetan enpresa munduan bide luzea egin duzuela, ezagutzen zaituztetela. Zeri zor zaiola esango zenuke?

Goimek-en lanen zehaztasuna eta piezen kalitatea da ezaguna. Horretarako, puntako instalazioak ditugu eta ekipo oso kualifikatua, bezeroen beharretara egokitzen dena.

Aldi berean, kooperatiba bat gara, eta pertsonak dira guretzat protagonista; pertsonak dira gure balio nagusia.

Arlo sozialean, berriz, ezaguna al da egiten duzuen lana?

Mallabian, Itziarren eta Zumaiaren baitan ezaguna da, izan ere, azken urteetan laguntzak banatu ditugu herri horietan.

Horrez gain, Danobatgroup-en parte garen aldetik, enpresa guztien ekarriarekin beste maila bateko laguntzak ematen dira. Euskal Herri mailako edo nazioarteko erakundeak laguntzen ditugu horrela.

IDPKen (heziketaren eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa) bitartez bideratzen ditugu laguntzak. Horren arabera, irabaziak dauden urteetan kooperatiba irabazien ehuneko bat honako laguntzetara bideratzera konprometitzen da: ongizatea eta osasuna, garapenerako kooperazioa, gizarte-inklusioa, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara eta kultura.

Gizartearekiko konpromisoa nabarmentzen duzue askotan. Noiz abiatu zineten bide horretan? Eta zerk bultzatuta?

Urte asko daramagu hainbat entitaterekin kolaboratzen (Korrika, Itziarko trail lasterketa, Burugorri martxan...). Aurten, berriz, Animadeba eta Zumaiako Pulpo eskubaloitza taldearekin ari gara. Horiez gain, Mallabiako jaietako ekimenak, *Anboto* aldizkariaren gehigarria, Lea Artibai Ikastetxea... ditugu. 2021ean ere, atek zabal-zabalik ditugu beste edozein ekimen interesgarrirentzat.

2018an Danobatgroup-ek Elkarrekin Eragin programa jarri zuen martxan langileen parte-hartze aktiboaz gizarte eraldake-

tarako proiektuak garatzeko. Emaguzu programaren berri.

Elkarrekin Eragin-en diru-laguntza ildoan hainbat urterako proiektu sendoak dira laguntzen direnak; kasu hauetan taldea osatzen duten kooperatibetako langileek prozesu partehartzaile baten bitartez aukeratutako lankidetzaren proiektuak dira diruz laguntzen direnak. Inplikazio handia izaten dute, hortaz, Elkarrekin Eragin programan bazkideek.

Elkarrekin Eragin-en lehen edizioan, esate baterako, hiru proiektu finantzatu ziren: Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearen (AECC) ekimen bat, prostatako minbizia garaz detektatzeko; The Walk On Project (WOP), gaixotasun neurodegeneratiboetako terapien ikerketa bat; eta, azkenik, Bizipoza erakundearen gizarte-inklusioa sustatzeko ikus-entzunezko proiektu bat.

Oso positiboa izan da balorazioa, beraz, bigarren edizioarako prozesua martxan da; laster emango da 2021ean aukeratutako hiru proiektuen berri.

Kultura eta euskara ere zuen laguntza-ildoen artean dituzue...

Bai! Euskara gure lan-tresnatzat dugu eta berau sustatzen saiatzen gara. Horretarako euskara batzorde bat dugu eta hainbat ekimen zehatz urtero. 2017an Eusko Jaurlaritzaren Zilarrezko Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria, lortu genuen, eta gure asmoa, zalantzarik gabe, gai honetan aurrerapausoak ematen jarraitzea da.

Zure ustez horrelako proiektuen parte izateak zer ekartzen dio enpresa bati?

Gure izaeraren parte da sorreratik: emaitzen zati bat balio erantsiko enplegua sortu eta, kolektiboek lagunduz, gizarte aurrerapena sustatzeko erabiltzen dugu. Osatzen dugun gertuko komunitatearen zati aktibo gara: zerbitzua emateaz gain elkarlanean dihardugu, betiere gardentasuna, partaidetza, eta eraginkortasuna oinarri hartuta. Honek guztiak, gainera, enpresa modura batu egiten gaituela esango nuke.

Gurea bezalako hizkuntza ugari daude munduan. Hona hemen pare bat adibide:

YUKATANGO MAIA



Ba al zenezkien Yukatango Maia Mexikon hitz egiten den hizkuntza gutxitu bat dela? Bada, halaxe da, eta 734.000 hiztun inguru ditu gaur egun.

Hona hemen sarri erabiltzen duten esaldi bat: *Bix a beel*; “zer moduz?” esan nahi du, hitzez hitz “Nola dago zure bidea?”.

Hiztunen tipologia

Haurrek eta adineko jendeak ez dute asko hitz egiten, gazteek soilik erabiltzen dute hizkuntza hau.

Gutxitze prozesua

Hizkuntzak gutxitze prozesua izan zuen duela 30-40 urte, umeez eskolan ez zutelako hizkuntza ikasten eta helduek ere ez zitelako transmititzen. Gaur egun, ordea, maia hizkuntza irakasten duten eskola asko daude.



Horrez gain, hizkuntza berreskuratzekeo ekintza ugari egiten dira; horien artean gure, adibidez, Yuuyum irratiaeren proiektua.


IRLANDAKO GAELERA

Dia daoibh! (Kaixo)

Beti esan izan digute euskara galzorian dagoela, baina... ba al zenezkien euskara ez dela galzorian dagoen hizkuntza bakarra? Gutxi gorabehera 3.000 hizkuntza daude desagertzeko zorian munduan. Imajinatzen duzue zer gertatuko litzatekeen hizkuntza hauek denak desagertuko balira? Auskalo zenbat kultura eta tradizio galduko genituzkeen!

3.000 hizkuntza horietatik bat Irlandako gaelera edo irlandera da.

Irlandak 4.964.440 biztanle ditu eta, egun, horietatik 130.000k bakarrik hitz egiten du gaeleraz.



Gaelera hiztunen ehunekoak konterriz konterri (2007).

Gaelera Irlandako jatorrizko hizkuntza da, baina herritar gehienek ingelesez hitz egiten dute gaur egun. Irlandako hizkuntza ofiziala izanda ere (ingelesearekin batera), hizkuntza gutxituen rankingean lehen 100 postuen artean dago gaelera.

Baina beti ez dira hain hiztun gutxi izan, 1800. urte aldera lau milioi gaelera hiztun zeuden Irlandan. Gosete Handia eta Irlandar Emigrazio mugimendu handiaren ondoren, berriz, 1851. urterako irlandararen hiztun kopurua 1,7 milioira jaitsi zen.

Slán tamall! (Laster arte)



Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:




babesleak:




Eskuen artean dauzkazuen orrialde hauekin agurtzen du ikasturtea Prentsa Tailerrak; ESKERRIK ASKO IRAKURLE GUZTIOI ETA LASTER ARTE!

Esker mila
Kurtso amaiera iristear dago eta ezin gara esker onekoago sentitu. Eskerrik asko hilabetero gure artikulua irakurri dituzten denei eta baita Berriketan aldizkariari, gure lanak argitaratzeko aukera emateagatik. Hirrengo urtera arte!
Ainhoa


ESKERRIK ASKO IRAKURLE GUZTIOI!!!
Unai Portero




Mila esker, hilabetero - hilabetero gu irakurtzearen, beste bat arte!
Maddi Txurruka



Mila esker hilabetero hilabetero Berriketan aldizkaria eta gure lanak irakurtzeagatik.
Maren






Eskerrik asko guztiagatik!
Eskerrak ematen dizkizuegu hilabetero zuek gure Mendatako ikasleen atalean murgildu izanagatik.
Sara Osa


Mila esker irakurle guztiei, plazer bat izan da gure lanak zuekin partekatu izana.
Oier becerra


ESKERRIK ASKO!
Eskerrik asko irakurle guztioi hilabetero-hilabetero aldizkari gure zatia irakurtzen ibili zaretelako.
Julene

Espero dut gure lana gustoko izana, eskerrik asko irakurri izanagatik.
Jon Etxeberria

IRAKUR LE-ON









Eskerrikasko denoi hilabetero hilabetero Berriketan aldizkaria irakurtzearen.
Ekaitz Aperribai

ESKERRIK ASKO!
Hilabete bakoitzean gure hitzetan murgildu zareten irakurle guztiei.
Enara

Eskerrik asko denoi gure aldizkaria hilabetero segitzeagatik.
Oinatz

Mila esker irakurle guztioi gure
aldizkaria irakurtzeagatik, espero dut gure lana asko guztatu izana.
Malen Formariz







Eskerrak eman nahiko nituzke
gure aldizkaria hilabetero irakurri duzuelako. Eskerrik asko bene-benetan!
Josu

eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!
eskerrik asko!


Eskerrik asko denoi, guk egin ditugun lanak irakurtzeagatik.
ADUR ARANBURU

ESKERRIK ASKO!





Eskerrikasko irakurleoi, plazer bat izan da denok aldizkaria irakurtzea
Xabi Arakistain





EKAINAK 24, OSTEGUNA

-19:00. "Death Cafe" saioa, Burugorriin.

EKAINAK 25, OSTIRALA

-19:00. **Kontzertua:** Unidad Alavesa eta Azken Sustraiak. Zumardiko karpan.

EKAINAK 27, IGANDEA

-09:00. **Mendi irteera txikia** (Itziaroko plazatik).

UZTAILAK 2, OSTIRALA

-22:00. **Iturri Ondoan:** Arineketan. Karpan.

UZTAILAK 3, LARUNBATA

-19:00. **Bertso saioa:** Oihana Iguaran, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Karpan.

UZTAILAK 4, IGANDEA

-11:00. Sendabelarrak ezagutzeko **txango gidatua**, Maite Camposen eskutik. Lasturren.
-22:00. **Udako zinema.** Kultur Elkartean.

UZTAILAK 5, ASTELEHENA

-12:00. Pentsiodunen **elkarretaratzea.** Plazan.

UZTAILAK 7, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken Akustikoak.** Gaztetxean.

UZTAILAK 8, OSTEGUNA

-18:00. **Barazki hartzituen tailerra,** Nerea Arri-zabalagaren eskutik. Zumardian edo karpan.

UZTAILAK 9, OSTIRALA

-22:00. **Iturri Ondoan:** Errimak bi oinetan. Karpan.

UZTAILAK 10, LARUNBATA

-10:00. **Bisita gidatua** Debako Santa Maria Elizan, Alex Turrillas Aranzetak gidatua.
-19:30. **Kontzertua:** Sara Zozaya (Itziarren).
-19:30. **Jazzez Blai:** Irati Bilbao Quintet. Karpan.
-22:30. **Jazzez Blai:** Manixa Jazz Choir. Karpan.

UZTAILAK 11, IGANDEA

-18:30. **Jazzez Blai:** Mazzedonia. Karpan.
-20:30. **Jazzez Blai:** No Land Trio. Karpan.

UZTAILAK 14, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken Akustikoak.** Gaztetxean.

UZTAILAK 15, OSTEGUNA

-19:00. "Bideak" **dokumentala** (Aritz Ganboa). Itziaroko Burugorri aretoan.

UZTAILAK 16, OSTIRALA

-22:00. **Iturri Ondoan:** Begiradak. Karpan.

"Lehen aukera herria" bonu-programa

Bonu-programa abiatu dute Udalak eta Debalaik elkarlanean, COVID-19ak eragin-dako krisiari aurre egin nahian eta ekainaren 14tik uztailaren 11ra bitartean gauzatuko da. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Uda Kirola 2021erako izen-ematea

Surf, body board, arraun surf eta surf skate eskaintza prestatu du Udaleko kirol zerbitzuak haur eta gazteentzat. Zabalik dago izen-ematea. Informazioa: 943 19 24 52 edo turismoa@deba.eus.

Udako ordutegia udal liburutegian

Ekainaren 21etik irailaren 6ra bitarte, Ostolaza liburutegiak udal ordutegia izango du. *Liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera (9:00-14); haur/gazte liburutegia (10:00-13:00).

Udako ikastaroa Debabe Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak uda ikastaroa eskainiko du goizez (lau orduz), ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Izen-ematea ekainaren 23ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako: 943 74 27 31 (goizez).

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **ekainak 28, 29, 30.**
uztailak 1, 16, 17, 18.

Burgoa Zuazo: **uztailak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 26 eta uztailak 3
BURGOA ZUAZO: uztailak 10 eta 17
9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

LIZ.-ZK.: 3 **TaxiAlain Deba** WiFi

www.taxideba.eus **636 135 008**
alain@taxideba.eus

ieraenea
esudenda
"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com
Tlf: 685 703 843

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 **API 447**

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

CONSERVAS
YURRITA

1867

GASTRONOMIKA

ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

© Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak ☺



ZUZENKO SALMENTA LANTEGIAN

Udako ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00

Larunbata: 10:00-13:00

Nola iritsi Mutrikutik/Ondarroatik:

Ondarroaranzko errepidea z/g (Gi-638, 58km).

Yurrita Group enpresaren aurrean, errepidearen beste aldean. Google Mapsen Casa Mauleon Etxea edo Yurrita Group jarri.

GAINERA!!

*Online Salmenta
etxera bidaliko dizugu*

www.tiendayurrita.com

